

hitzen uberan



Euskal Idazleen Elkarteak
eskainitako webgunea

BIDEOA

Biodiskografiak (Erein, 2011) liburuan oinarritutako emanaldiarekin saio ugari egin dituzte Iban Zalduek (ipuin-liburuaren idazleak), Xabier Montoia kantariak/idazleak eta Ibon Rodriguez musikariak. Maiatzaren 22an asteartea, Gasteizen arituko dira, Parral tabernan 20:30ean hasita. Antolatzailea: GEJ Gasteiz. Bideo hau, Raibabel blogetik hartu dugu.

AGENDA



Irakurraldi kolektiboa
Txillardegiren omenez
Errezitaldia
2012-05-11 | Arrasate



Ander Lipus eta Xabier
Mendiguren Literatura
Eskolan
Irakurle taldeak eta klubak
2012-05-12 | Iruñea
(Txantrea)



Anne Berest-en 'Bere
aitaren alaba' mintzagai
Irakurle taldeak eta klubak
2012-05-14 | Igorre



Maiatz solasaldiak
Baionan 15 eta 16an
Jardunaldiak
2012-05-16 | Baiona



'Azken tranbiaren itzala'
liburuaz solasean
Irakurle taldeak eta klubak
2012-05-16 |
Errenteria/Orereta,
19:00etan



'Soinujolearen semea'
liburuaz Hendaian
Hitzaldiak
2012-05-19 |

Agenda osoa ikusi

Sarrera | Kaia |

Pello Lizarralde: "Nik idatz dezakedana zalantzatik abiatzen da eta zalantza du helburu"

ORBANAK

ORBANAK LIBURUA AURKEZTU DU EREIN ARGITALETXEAREKIN

Osteguna, 2012-05-10 |



"Ezin dut ukatu hainbeste liburu argitaratzen den honetan, nirea nabarmendu dezakeen zerbait erakutsi nahi nukeela". Hauek izan dira **Pello Lizarralde** egin dituen lehen hitzak. **Orbanak** (Erein 2012) liburuaren aurkezpen ekitaldian izan da, eta hasiera-hasieratik honako aitortza egin du: "berehala konturatzen naiz lanak izango nituzkeela egin dudanaren erakargarritasunak erakusten eta hobe dudala luzamenduak utzi eta aitortzea azken honetan aurrekoetan zegoena dagoela, kapitulu bat gaineratu diodala lehen idatzitakoari". Nobela berri honetan, ordea, bada beritasunik. Idazleak berak esanda: "bada lehenengo pertsona mintzo den norbait, egitura markatzen duen ispilu txiki bat beste bi handiagoren artean eta beste zenbait ez hain nabarmenak".

Larrepetit (Erein, 2003) idatzi zueneko kezka batetik abiatu dela aitortu du **Pello Lizarralde**. **Orbanak** (Erein, 2012) izeneko liburu berriaren "anekdotak ez du inor liluratu, baina, nik behintzat, pertsonaiek zeharkatzen dituzten mendi eta ordoki horietan aspaldiko mehatxu eta beldur antzeko bat sentitu dut, beharbada irakurle ere eraman dezakeena nik ezagutzen ez dudan toki batera. Inguru horren eta gero etorri den guztia eragiazko sorra, beti bezala, urtetan burutik kendu ezinik ibili naizen irudi batzuek eragina da, eta lotura non dagoen zehatz ez dakidan arren, orain dela zenbait urte argitaratu nuen **Larrepetit** (Erein, 2003) hartan utzitako hari batzuei tiraka sortu direlakoan nago. Irudiek, gainera, lurralde jakin batera eraman ninduten eta lurralde hori zapaldu orduko kezka batek hartu ninduen eta ez nau utzi liburua idazten bukatu arte".

"Zigortzeko egarri hori"

Kezka hura bi norabidekoa zela aitortu du Pello Lizarralde: "lehenengoa nire baitara zihoan zuzenean, eta bigarrenak kanpora jotzen zuen, besteengana. Niregana heldu zenak aspaldian daukadan joera gaizto bat erakusten eta azpimarratzen zidan: lagun hurko azkarregi epaitzekoa; besteak, inguruan ikusten ditudan askoren artean ikaragarri zabalzen ari den justizia egiteko eta zigortzeko egarri hori".

Zalantzatik abiatu, zalantza helburu

Kezka hori arintzearen idatzi badu ere, idazle-lana ez da sendagarri. "Idazle askori entzun diet idaztea sendagarria zaiela. Niri, zoritxarrez, ez dit horretan lagutzen, eta, horregatik, oraingoan ere banekien arestian aipatu dudan gaitz hori edo antzeko beste batzuk ez ditudala nire baitatik erauziko literaturari esker", adierazi du gaur Donostian egin den aurkezpen ekitaldian. "Harrokeria hutsa litzateke irtenbide bat proposatzea eta inozokeria uste izatea idazteak irauten duen bitartean erantzunak iritsiko zaizkidalda. Nik idatz dezakedana zalantzatik abiatzen da eta zalantza du helburu. Ezin asmatu dut helburu hoberik", gaineratu du Pello Lizarralde.

Iruzkina (o)

Iruzkina idatzi

izena*


E-posta*

Osatu kanta: "Hegoak _____ banizko, nirea izango zen"

(derri-gorrezkoa, spam-aren kontra)*

Iruzkina bidali

ERAKUSLEIHOA



Antonin Artaud izango dute hizketagai Literatura Eskolan Ander Lipus eta Xabier Mendigurekin. **'Kaia'n horren berri** ematearekin batera, **'Amuak'** atalean gogoratu nahi izan dugu Artaud.

ELKARRIZKETA

Iñaki Irasizabali elkarrizketa



Nobela beltzaren kutsua du "Orbe auziaren ingurukoak" liburua

ERREPORTAJEA

Egilea editore denean



ARRANTZATUAK

Harkaitz Cano: «Literatura da inoiz beritasun izateari uzten ez dien albiste sorta»

2012-05-11 | Berria

«Inportanteena anbizioa da; ezin da edozer gauza idatzi»

2012-05-11 | Berria

Egia esateko bost zailtasun (Brecht)

2012-05-10 | Andreas eta Gudrun

Ignacio Aldecoa ipuin lehiaketaren

XLI. edizioa

2012-05-10 | Nontzeberri

Strindberg hil zela ehun urte

2012-05-09 | Emailuak

John Steinbecken 'Saguak eta gizonak' eleberri entzutetsua itzali du euskarara Iñigo Errastik

2012-05-08 | Berria

HARREMANETARAKO

Oier Guillan & Imanol Ubeda
hitzenuberan@gmail.com

TXIOAK

[@juankarhi](#) RT [@hitzenuberan](#): Juankar Hernandez-Ekaitz Goienetxea. Gaurko azala eurena da. <http://t.co/NgfNgpQ5?http://t.co/fciCdyua>



[@juankarhi](#) RT [@hitzenuberan](#): Juankar Hernandez-Ekaitz Goienetxea. Gaurko azala eurena da. <http://t.co/EXAciQC?http://t.co/9G4QcAiv>



[@hitzenuberan](#) Juankar Hernandez-Ekaitz Goienetxea. Gaurko azala eurena da. <http://t.co/i4ZUjo4?http://t.co/VDa6y9Ra>



LAGUNTAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

